



Bidean gorde ta bidean aurkitu.

Ezaguna da gure herrian egunero kondaira ugari jaiotzen direla. Baina oraingoan plazaratuko dudana egitan suertatu zen istorioa da. Hor kontatu didate neri behintzat.

Iñaxio Gebara 53 urteko ezkongabea dugu. Baserritar oñatiar honek urteberri egunean Aizkorrira igotzen zen goiz goizetik, hamaiketako eta diru poltsa ugariekin.

Bidean, poltsa txikietan, dirua uzten zuen zuhaitz, harri edo, bere ustetan polita zen inguru batean izkutatuta. Ez zen dirutza ugari eta, urtean zehar, joaten zen askotan Aizkorrira jasotako guztia berreskuratzera.

Inork ez zekien hori egiten zuela, berak ere ez zekien zergatik egiten zuen hori. Jolas bat besterik ez zen berarentzat., dirua behar edo nahi zuenean, mendira abiatzen zen diru bila.

Gauzak horrela, larunbat batean, bere begikoena zen harrian emakume galant bat aurkitu zuen eserita. Hor ondoan diru nahiko zegoen, dudarik gabe, eta Gebarak bi aukera zituen: aurrera jarraitu edo, bestela, emakume horregaz geratu berak alde egin arte.

Asko pentsatu eta gero, harrira heltzear zegoenean, aurrera jarraitzea erabaki zuen... eta kontrakoa egin. Horrelakoa zen gure Iñaxio maitea, ezustekoz beterik dagoen gizona.

Emakumearekin lotu ta solasaldia hasi zen. Bera, Madalen Zumeltzegi, Auntzuolakoa zen, Oñati ondoan dagoen herrizka batekoa. Hasieran egoera guztiz arraroa ematen bazuen ere, laster bilakatu zen elkarrizketa aberats, mendia eta bizitzaren inguruan. Ta, azkenik, biok batera joan ziren Aranzazuraino.

Agurtzean, Iñaxiok bere herria ezagutu nahi zuela esan zion, aski ezaguna izan arren, Madak susmatzen zuen bezala.

- *“Ez dago gehiegi ikusteko!!”* bota zion emakumeak.
- *“Zerbait egongo da!! Paseotxo bat eman dezakegu behintzat.”* erantzun zuen besteak.

Horrela, herriz herri eta mendiz mendi, Mada eta Iñaxio bikote edo dena delako bihurtu ziren. Nahiz eta, bien ustetan, maitasuna orain urte asko igaro zen trena izan.

Gabonzaharra Iñazioren etxean igaro zuten, bere ama, ia 80 urteko emakumea, ez zen inoiz baserritik irteten. Ezta 1998an, baserri erdia erre egin zenean tximista madarikatu baten ondorioz. Julik, horrela deitzen zen ama, esaten zuen bere mundu bakarra baserria zela. Esan eta bete, egia esanda.

Gabon polita izan zen dena den. Azken orduan, Julik jadanik ohean eta lo zegoenean, Iñaxiok zerbait konfesatu zion Madari.

-“*Gogoratzen zara Urbian elkar ezagutu genuen goiz horretaz?*”-

-“*Nola ez!! Egun polita izan zen atrebituegia izan zinen nere gustorako baina pozten naiz horretaz* - onartu zion Madak.

-“*Egitan atrebimendua ez zen horrenbesterako. Ohitura baten ondorioa besterik ez da.*” – aitortu zuen oiñatiarrak.

-“*Zein da ohitura hori?*”- ausartu zen galdetzera.

-“*Urtarrilaren batean goizean goiz Aizkorrirantz joaten naiz urtero. Bidetik ikusten ditudan harri, zuhaitz eta inguru ikusgarrietan diru poltsaren bat uzten. Diru nahiko zegoen eserita zeunden harri horren ondoan*”- aitortu zion azkenik Iñaxiok.

Mada harrituta geratu zen, azkenik bere harremana diru kontua zela jakitean.

-“*Beno, behintzat solasaldiak irabazi zuen*”.- adierazi zuen azkenik, Iñaxio berarekin joan zela eta ez zuela poltsarik jaso gogoratuz.

Gabon gau hura batera igaro zuten lehendabizikoa zen. Goizean, Iñazioren ohitura jarraitzen Aizkorrirantz hurbildu egin ziren. Lainoak uzten zuen arte behintzat.

Bidean diru poltsak izkutatu zituzten. Hori bai, oraingoan urtean zehar ez ziren bueltatzen dirua hartzera. Bion arteko maitasunarekin aski zuten.

Debagoien ezaguna da Arantzazutik Urbiarako bidea diruz josita dagoela. Ia denok, bidean maitasuna dirua aurkitzea baino askoz garrantzitsuagoa dela dakigun bezala.